

Hezkuntza AIARALDEAN

HAURRESKOLAK · BATXILERGOA · LANBIDE HEZIKETA

GUSTU GUZTIETARAKO ASKOTARIKO AUKERAK



Gehigarri berezia

Erreportajea

Aiaraldeko ikasleak konfinamenduan: Etorkizun ezegonkorra pantailaren aurrean

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Bi hilabete daramate Euskal Herriko hezkuntza zentro guztiek itxita. Gauzak hala, martxotik hona zeharo aldatu da eskualdeko ikasleen errealitatea. Ordenagailuko pantaila bilakatu da euren arbel berria, eta baita bakarra ere. "Orain dena egiten dugu telematikoki, eta horrek ordenagailuarekin egun osoa ematea suposatzen du". Hala azaldu du Jone Urruela ikasle amurrioarrak. Antzeko egoera bizi du Angela Vadillo artziniegarrak: "Skype bidez egiten ditugu klaseak eta gero lanak bidaltzen dizkigute batez ere".

Sandra Castaño Haur Hezkuntzako Gradua egiten ari da EHUn, eta oso kritiko azaldu da konfinamenduan zehar bizitakoarekin. "Guztia hasi zenean pentsatu nuen aukera bikaina izango zela denbora asko eskatzen duten gauzak egiteko, etxean egoteko denbora gehiago izango nuela uste nuelako. Baina kontrakoa izaten ari da: Gmaila ireki orduko lan berriak dituzu egiteko, bat edo bi arlo bakoitzeko, baina bost arlo dira. Lan kopuruak, beraz, gora egin du".

Carlota Gaviña ere EHUn dago, zientzia politikoak ikasten. "Irakasle batzuek unibertsitatean bezala ematen dizkigute klaseak. Beste batzuek, aldiz, ez dute klaserik ematen eta beste batzuk 'power point' bat jarri eta irakurtzera mugatzen dira", azaldu du ikasle amurrioarrak.

Xabier Egia, aldiz, nahiko modu erosoan igarotzen ari da konfinamendua, baina unibertsitateak "nahiko kezkatua" duela dio: "Ordenagailu bidez ezin ditut egin klase batean egiten nituen gauza berak, eta hori handicap handia da bizitza akademikoa modu normal batean eramateko".

Lan karga handiagoa

Konfinamenduak kontrakoa iradoki zezakeen arren, lan karga handitu egin dela uste dute ikasle gehienek. "Egunero hamaika mezu heltzen zaizkigu, lanek normalean oso epemuga laburrak izaten dituzte eta, niri behintzat, oso zaila suertatzen zait lana eguneratua eramatea", azaldu du Urruelak.

Gaviñak, bere aldetik, lanak egiteko zailtasunak nabarmendu ditu: "Lan gehienak talde lanak dira eta horrek gauzak zailtzen dizkigu".

Baliabide falta

Baliabide faltaren auzia ere jarri dute ikasleek mahai gainean. "Nik badut wifia eta ordenagailua eta horrek asko errazten du lana. Baina nire klasekide batzuk ez dute halakorik", azaldu du Iraide Vallejok, "batzuk bost dira etxean eta hiru daude ikasten. Traba handia da".


Antzeko gauzak kontatu ditu Jone Urruelak: "Ni ezin naiz kexatu, etxean bi ordenagailu, inprimagailua eta wifia ditugu". Hala ere, ezagutzen ditu hainbat ikasle arazoak izaten dituztenak, herri txikietan bizitzearen ondorioz konexio txarra dutenak, adibidez. "Irakasleekin ditugun bideo-deietan azalpenak ulertzea jada latza bada, konexio txarra izateak askoz gehiago zailtzen du egoera". Era berean, gazte amurrioarrak nabarmendu du ikasle batzuek familiako gainontzeko kideekin partekatu behar dutela ordenagailua, "eta horrek asko zailtzen du dena, batez ere emailak uneoro iristen zaizkizunean".

Unibertsitatean ere sumatu dute gabezia. "Ez dute buruan izan baliabide horiek ez dituen jendea dagoela, ez dute galdetu ere egin, eta unibertsitate publikoa izanda eskatzen den guztia gure eskumenera egon beharko litzateke", kritikatu du Sandra Castañok, "baliabiderik ez daukan jendeak zer egingo du, azterketak suspendituko ditu? Ez da bidezkoa, ez eurentzat ez inorentzat".

Pantailaren kalteak

Pantaila aurrean denbora luzez egotearen ondorioak ere nabarmendu ditu Urruelak. "Aurrekoan azterketa bat egin ostean sekulako buruko minarekin amaitu genuen guztiok. Benetan kezkatzen nau horrelako baldintzetan egiten ditugun probak gero notarako kontatzea".

Xabier Egiak Deustuko Uni-



Angela Vadilllo
Lanbide Heziketako ikaslea

"Ikasturte honetan uste dut ez garela ikastetxera itzuliko"



Iraide Vallejo
Lanbide Heziketako ikaslea

"Itxaron beharko dugu, ez dakigu zer gertatuko den"




Xabier Egia
Unibertsitateko ikaslea

"Enpatia falta sumatzen dut irakasleen partetik"

BABESTUTAKO EDUKIA

"LEINN graduan izandako esperientzia oso bizia izan da"

ANDONI ETXEBARRIA GUARESTI (LAUDIO, 20 URTE) LIDERGO EKINTZAILEA ETA BERRIKUNTZA GRADUKO 3. MAILA EGITEN ARI DA MONDRAGON UNIBERTSITATEAN.



Zergatik aukeratu zenuen LEINN gradua?

Bizitza osoan ikasi izan dut modu tradizionalean, eta ez nintzen desafiatua sentitzen. LEINN aukeratu nuen beste modu batean ikastera bideratuta dagoelako. Horrez gain, negozio munduan zentratuta dagoelako.

Zer iruditu zaizu LEINNen bizitako esperientzia?

Nire LEINNeko esperientzia oso bizia izan da. Ikasketak eta lortutako garapen pertsonala bikainak izan dira. Beti izan naiz oso pertsona itxia, eta asko lagundu dit zabaltzen. Daukazun askatasuna azpimarratuko nuke. Ohituta zaude dena eginda eman diezazuten, eta bat-batean esaten dizute ez daukazula araurik. Hortik abiatuta, zure burua eta taldea kudeatzeaz gain, arazoei aurre egin behar diezu.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Egiten ikastea. Inork ez digu esaten zer egin behar den, eta hanka sartzen baduzu, zure bidea zuzenduko duzu. Bestalde, gustatzen zait bezeroarekin egotea, gradu hau praktikan oinarritzen delako. Bezeroekin erlazionatzen eta enpatia izaten ikasten duzu.

Lehen egunetik enpresa bat sortzen duzu unibertsitatean eta proiektuak garatzen dituzu, nola egiten da hori?

Errore-frogaren metodoarekin, akatsak, probak, akatsak. Inork ez dauka formula magikorik esateko nola egin behar den proiektu bat. Orduan, kalera irten behar da, zer behar dauden ikusi... eta saiatu pertsonek dauzkaten beharrei konponbidea ematen. Denetarik garatu dugu. Garatu ditugu kopa forma daukaten dendak, eta baita denda finkoak merkataritza zentroetan ere. Esportatu ditugu produktu espainolak Estatu Batuetara eta Ingalaterrara, eta produktu propio bat ere sortu dugu.

Atzerriko esperientziarik izan duzu edo izango duzu? Non?

Ingalaterran eta Kalifornian. Txina eta Indiara joatekoa nintzen, baina bidaia bertan behera gelditu da koronabirusa dela-eta. Oso esperientzia biziak dira. Atzerrian saldu behar duzu zure ama hizkuntza ez den hizkuntza batean eta kultura ere ezberdina da. Bisio globala garatzen duzu.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA www.mondragon.edu

bertsitatean ikasten du, baina nabarmendu du bertan ere nahiko eskas daudela baliabide digitalen aldetik. "Guri esan digute asko inbertitu dutela doktrina digitalean, baina ikasleok oraindik ez dugu ezer ikusi". Irakasleen jarrera ere kritikatu du amurrioarrak: "Irakasleek geroz eta lan gehiago bidaltzen dizkigute, pentsatzen dutelako lanek azterketak ordezkatuko dituztela. Irakasleen partetik enpatia falta handia sumatzen dut, eta hori nahiko tristea iruditzen zait".

Lanbide Heziketa


Lanbide Heziketako ikasleen artean, aldiz, ziurgabetasuna da nagusi. Asier Aldamaren kasua da horren adibide. Goi mailako ziklo bat ikasten dago, bigarren mailan. Poloniara joan zen lan praktikak egitera, baina pandemia dela eta etxera itzuli behar izan zuen martxoan. "Orain ezin ditugu praktikak jarraitu. Dena dago oso blokeatuta, ez digute inolako informaziorik ematen. Ez dakigu lan praktikak aprobatu dizkiguten edo hurrengo urtean egin beharko ditugun.



Asier Aldama

Lanbide Heziketako ikaslea

"Orain ezin ditugu praktikak jarraitu, ez dakigu ezer"



Carlota Gaviña

Unibertsitateko ikaslea

"Taldean egitekoak dira bidaltzen dituzten lan asko"

Baina hori arazo handia izango litzateke, unibertsitatean hasteko asmoa genuelako askok".

Angela Vadillo ere ziklo bat egiten dago, eta nahiko argi du ikasturte honetan ez direla klasera itzuliko, baina ez daki askoz gehiago. Iraide Vallejo ere blokeatuta dago. Sukaldaritza ikasten du eta, arlo gehienak praktikoak direnez, konfinamenduan ez du ezer aurreratzen. "Itxaron beharko dugu, besterik ez".

Selektibitatea prestatzen

Ez da xamurra ezta ere aurten selektibitatea egin behar duten ikasleen egoera. "Azterketa uztailera atzeratu dute, baina inork ez daki ziur zer gertatuko den", azaldu du Urruelak, "gure etorkizuna airean dago, eta horrek sekulako estresa sortzen dit niri. Ez dakit datorren urtean nahi dudan graduan sartu ahalko naizen, ez dakigu azterketa zer baldintzetan egingo dugun... ez dakigu ezer, eta asko kezkatzen nau horrek".



Sandra Castaño

Unibertsitateko ikaslea

"Baliabiderik ez daukan jendeak zer egingo du, azterketak suspendituko ditu? Ez da bidezkoa, ez eurentzat ez inorentzat"



Jone Urruela

Batxilergo 2.mailako ikaslea

"Selektibitatea egin behar dugunon etorkizuna airean dago, eta horrek sekulako estresa sortzen dit niri. Ez dakigu ezer, eta asko kezkatzen nau horrek"



ANE SAUTUA GARCIA

IKASLEA

Koronabirusaren eragina hezkuntzan

Egoera honek inoiz baino ageriagoan uzten du ikasleon beharrak ez direla hezkuntza sistema honen kezka.

Ikasle guztiok ez ditugu aukera berdinak, eta horrek, indibidualismoa bultzatzeaz gain, gure arteko ezberdintasunak areagotzen ditu. Edozein ikaslek ez dauka Internet bitartez ibilbide akademikoarekin jarraitzeko ahalmena.

Inoiz baino lan gehiago bidaltzen dizkigute, etxean egoteagatik denbora soberan izango bagenu bezala, eta honek ez digu uzten ezohiko egoera honetan hain garrantzitsuak diren boluntario sareetan parte hartzen.

Hezkuntza sistemak ikasleen beharrak eta kezkak erdigunean jartzea da eskatzen ari garena, eta horregatik, Gora Ikasle Borrokatik, salaketa kanpaina bat egin dugu gure aldarrikapenak entzun daitezen.

Egoera hau luzerako doa, eta gure ibilbide akademikoarekin segurtasunez jarraitu ahal izango dugun jakin nahi dugu.

2.batxilergoko ikasleek gainera, selektibitatearen aurrean daude, eta egoera honen aurretik kezkatuta bazeuden, orain askoz gehiago. Euskal ikasleriaren indarra batuz, hezkuntza sistema honek ikasleak erdigunean jar ditzan lortuko dugu.

Gora ikasleon borroka!

Open your Mind

Hizkuntza bat hobetu edo ikasteko garai hobeezina

Amurrioko San Anton plazan kokatutako hizkuntza eskola da Open your Mind. Eskaintza akademiko zabala dauka, haurretatik Advanced tituluraino doana. Hizkuntza azterketa ofizialetarako prestakuntza eskaintzen dute, baina ez soilik ingelesean. Frantses eta alemanezko klaseak ere dituzte eta azterketa ofizialetarako prestakuntza eskaintzen dute baita hizkuntza horien ere. Erresuma Batura, Irlandara edota Estatu Batuetara enpresekin joateko programa du baita akademiak.

First klaseak udan

Koronabirusaren krisia hasi zenean, irakaskuntzan aritzeko modu berriak jorratzeari ekin zioten. Martxoaren 16tik daramate online klaseak egiten, eta horrela amaituko dute ikasturtea. Hala ere, uztailean First azterketa prestatzeko jardunaldi intentsiboak egiteko asmoa dute, egoerak ahalbidetzen badie betiere.

Nabarmendu dutenez, konfinamenduko egoera hau aukera paregabea izan daiteke hizkuntza gaitasuna hobetzeko. "Gure taldeak ez dira oso jendetsuak eta ordutegiak mantendu ditugu, ikasleek euren errutina mantendu dezaten, hori oso garrantzitsua baita garai hauetan", nabarmendu dute.



Laudio Ikastola

“Naturan askatasunez jolasten duten haurrek berezko kontzentrazio eta motibazioa dute”





Egunero ateratzen dira Laudio Txikiko haurrak kalera, naturaz gozatzera. **Laudio Ikastola**

Laudio Ikastolako Haur Hezkuntzako lehen zikloan, Laudio Txikin, haurrak naturarekin harremantzeko ekimena jarri dute abian. Eguraldi iragarpena edozein dela ere, esperientzia bizitzera motibatzen dituzte umeak, ohiko eskola patiotik harago, Ikastola ondoko basora ere esperientzia zabalduz. Izaskun Burdainek, Laudio Txikiko koordinatzaileak, ekimenaren nondik norakoak azaldu dizkigu.

Ze onura ekartzen du umeak euria edo eguraldi txarra egonda ere eraikinetik ateratzeak?

Haurtzaroan, naturan jolasteak onura anitzak ditu. Kuriositatea eta harritzeko gaitasuna gure txikitxoen ezaugarri nabariak dira. 24 orduz zientzialari, detektibe eta ikertzaile nekaezinak dira! Naturak bukaezinak diren aukerak eskaintzen dizkie gaitasun guzti hauek garatzeko. Naturan askatasunez jolasteko aukera duten txikiek, berezko kontzentrazio eta motibazioa adierazten dute.

Sarritan natura pantaila, liburu….baten bidez ikasten dute.

Guzti honen inguruan hainbat hausnarketa egin ondoren, Laudio Txikiko taldeak, Ikastolako 0-3 zikloak, egunero kalera, naturan egotera atera behar genituela erabaki genuen. Berdin zen eguraldi iragarpena: euzkia, euria, hotza, haizea… oso ezberdinak baitira naturak ematen dizkigun aukerak eguraldiaren zein urtaroen arabera: putzuetan salto, sortzen diren errekatxoak, euri ttantak, areneroaren area lehor edo bustita aurkitzean ematen diren aukerak, hostoak, ezkurrak…


Umeek nola erantzun dute? Guztiak ateratzen dira?

Pentsatu baino askoz harrera hobeagoa izan du familien partetik. Lehenik eta behin, egunero beraien seme-alaba kalera ateratzeko euritarako arropak, katiuskak ekartzea eskatu genien eta hau gure sorpresa! Aste beteko epean, gehiengoak ikastolan zuen. Hezitzaileontzat esperientzia zoragarria izan da, oso bestelako esperientziak, harridurak… elkarrekin partekatzeko aukera izan dugu. Esan beharra dago, egunaren arabera, talde txikitxoren batek barruan gelditzea erabakitzen zuela. Baina hau hezitzaileontzat ez da oztopo, gure egunerokoa horretan oinarrituta baitago. Hau da, proposamen anitzak egin eta umeak aukeratzen du noiz, zer, norekin eta zenbat denboraz egin.

Aipatu beharra dago, Ikastola kokatuta dagoen inguruak plan hau aurrera eramatea ahalbidetzen digula. Zentzu horretan pribilegiatu batzuk gara!

Laudio Ikastolak matrikula jarraia eskainiko die 2019an eta 2020an jaiotako haurren familiei

Laudio Ikastolak aurreratu egingo du 0 eta 1 urteko haurren matrikula burutzeko prozedura, osasun larrialdi egoerak sortutako badintza berrietara. Izan ere, orain arte maiatza hasieran burutzen den matrikula epea, familien beharretara egokituko du eta 2019an eta 2020an jaiotako haurren gurasoek 2020/21 ikasturtearen edozein momentutan burutu ahal izango dute matrikula.



Baliabide telematikoak jarri dituzte familien eskura. **Laudio Ikastola**

Epeak egokitzeaz gain, matrikula burutzeko prozedura ere egokituko du Ikastolak, familiei tramitazioa era presentzialean burutu beharrean baliabide telematikoekin gauzatzeko aukerak eskainiz.

Horretan ari da egunotan bertoko Ikasketa burua den Izaskun Goitia, “familien beharrak aldatu egin dira egun batetik bestera, eta egoera berria egokitzeko ahaleginean ari gara egun hauetan”.

Ikastolarekin harremana ahalik eta modu errazenean eskaintzea da aurrean duten erronka eta horretarako matrikula@laudioikastola.eus posta elektronikoa, 94 672 67 37 telefonoa eta www.laudioikastola.eus web guneko matrikula atalean kontaktu formulario bat aktibatu dute.

“Familiei ahalik eta harreman hurbilena eskaini nahi diegu. Ohiko telefono deietatik haratago, bideodeiak eskaintzen dizkiegu gure eskaintzaren informazioa era atseginenean eskura dezaten”.

Laudio Ikastola



IKASTOLAN MATRIKULA ZABALIK

URTE OSOAN

etorkizun hobea sortzeko hezten dugu

2019an eta 2020an jaiotako haurren izen-ematea etengabean irekita mantentzea erabaki dugu egungo egoerara egokitzeko.

Informazio gehiago jasotzeko, 94 672 67 37 telefonora deitu edo matrikula@laudioikastola.eus helbidera idatzi eta lagutzeko prest izango gaituzu!

LAUDIO ikastola

www.laudioikastola.eus

Laudio Ikastola

Matrikulazio saio telematiko irekiak abiatu ditu Laudio Ikastolak

GURASOEKIN ERE TELEMATIKOKI KOMUNIKATZEN DIRA, KONFINAMENDUA HASI ZENETIK.



Matrikulazio kanpainan zehar ere bilera irekiak egingo dituzte. **Laudio Ikastola**

Ikasleen jarduera akademikoa elikatzeaz harago, Hezkuntza Komunitate osoa harremanetan jartzeko ekimenak jarri ditu abian Laudio Ikastolak, oraingoan guraso bilera telematikoak burutuz.

DBH etapako mailatan abiatu da esperientzia eta datozen asteetan Ikastolako gainerako etapatara zabaltzeko asmoa du zuzendaritzak. Bigarren Hezkuntzako etapatan ikasle bakoitzak bere ekipo propioa du eta ikasleek telelanean aritzeko pilatutako eskarmentua baliatu dute guraso bilera deialdiak abian jartzeko.

Bileren xedea ez da arlo akademikoren jarraipenera mugatu eta familiek elkarren berri izatea ahalbidetzeaz aparte, komunitatearen jarraipen emozionala ere bileren gai zerrendako puntuetako bat izan da.

Osasun krisiak eragindako konfinamenduak aurrera egin ahala Laudio Ikastolak ikasle guztiekiko harremana telematikoki bermatzeko ahaleginean aritu da. 0 urtetik 18 bitarteko ikasleen familien egoera anitza da eta etapa bakoitzeko ikasleen ezaugarrietara moldatu du harreman telematiko hori. Lehen Hezkuntzako 4. mailatik aurrera, ikasleek beraiek era autonomoan irakasleekiko harreman hori kudeatzeko konpetentzia digital minimoa dute eta hortik beherako mailatan, gurasoen bidez abiatu da esperientzia, Haur Hezkuntzako 1. zikloko 0, 1 eta 2 urteko ikasleak barne.

Beste edozein ikastetxetan bezala, harreman telematiko hori komunitate osoarentzat bermatzea izan da Laudio ikastolak erantzun duen erronka nagusietako bat, horretarako gutxieneko tresna eta konexioak bermatzeko ekimenak zabaldu ditu familien artean, hala behar duten ikasle guztiek lanerako tresna egokia izan dezaten eta baita ere konexiorik gabeko familiek Ikastolak lortutako 4G routerrak eskura ditzaten.

Matrikulazio telematikoa

Batxilergorako matrikula egiten interesatutako ikasleei eta beraien familiei era telematikoan informazioa luzatzeko erronkari heldu dio Laudio Ikastolak. Ikasleek datozen urteetan jorratuko duten ibilbide akademikoan Ikastolak eskaintzen dizkien aukerak azaltzeko matrikula saio irekiak burutzen ari dira, nahi duenak banakako elkarrizketa ere bideo deia zein telefono bidez hitzartzeko aukera duelarik.

Matrikula epea maiatzaren 22 bitartean izango da zabalik eta Ikastolarekin kontaktatzeko matrikula@laudioikastola.eus posta elektronikoa, 94 672 67 37 telefonoa eta www.laudioikastola.eus/matrikula atalean bete daitekeen formularioa aktibatu dute zuzeneko harreman hori ahalbidetzeko.

"Egoera berri honek gauza berriak egitera eta asmatzera eraman gaitu"

Laudio Ikastolako Bigarren Hezkuntzako ikasketa buruak, Igor Lujanbiok, Cuadernos de pedagogía aldizkariak Trilema fundazioarekin batera antolatutako irakasleen foroan parte hartu zuen apirilaren 30ean. Berton Galizia, Katalunia, Errioxa eta Madrileko ikastetxe ezberdinetako kideekin batera, COVID-19ak Hezkuntza alorrean eragindako egoeraren azterketa eta aurrera begirakoei buruzko solasaldia partekatu zuen.



IGOR LUJANBIO LAUDIO IKASTOLAKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASKETA BURUA DA.

Konfinamendu garai honek ezustean harrapatu gaitu guztiok. Nola ari zarete bizitzen zuek egoera berri hau?

Errealitate anitzak daude, eta denetarik dago esparru guztietan. Okerren, ziurrenik, DBH 4 eta Batxilergoko 2.mailako ikasleak ari dira bizitzen. Garai erabakiorrak dira eta egoerak ez du ezertan laguntzen. Emozioak, agurrak, ikasbidaiak, erabaki-prozesuak... berez hau dena batera bizitzen duten garaian etorri da osasun krisi hau. Ez da erraza.

Etxealdiak gauza asko egin ahal izateko mugak ezarriko ditu, ezta?

Gu ez gara distantzian lan egitera ohituta dagoen zentro bat. Nahiago dugu ikasleekin aurrez aurre lan egin, eta orain... oso zaila da. Baina ez da ezinezkoa, egoerara egokitzen joan beharko dugu eta salbuespenezko egoera dela jakitun izanik, aurre egiten ikasteko ere balioko digu. Bizitzak berak horrelako ezusteak ere ematen dizkigunez, horiei aurre egiten ikasteko ere balioko digu, hortaz.

Zer egiten ari zarete zentro moduan, ikastola bezala, ikasleekin batera joateko?

Animikoki eta emozionalki elkar babesteko ahalik eta komunikaziorik handiena izaten ahalegintzen ari gara. Ikasleekin enpatizatzea da, gure ustez, gakoa. Horretarako tutoretza ugari, familia-bilerak eta abar burutu ditugu eta burutzen arituko gara. Ikasleen jarraipena egiteko tarteko ebaluazio-saioak egin ditugu Bigarren Hezkuntza osoan. Gure asmoa hiru ideia argiren inguruan lan egitea izan da. Bat, mezu ahalik eta argienak bidaltzea, adostutakoak, eta eraginkorrak; bi, enpatikoak eta gardenak izatea; eta hiru, ahal den heinean sormena garatzea. Azken ideia honen harira, "Sormenari so" izeneko proiektua garatu da.

Ebaluazioari erreparatuz gero zein zailtasun izango dituzue?

Galdera ona da. Ikusirik egoera "berezia" eta ezohikoa dela, ebaluazioari begirako gure proposamenak ere ezohikoak izango dira. Ezin dugu "ohiko" egoeran ebaluatuko genukeen bezala ebaluatu, egoerara moldatzeko lanean ari gara irakas-talde osoarekin, Ikastolen Elkartearekin eta Hezkuntza Saileko ordezkariarekin.

Eztabaida, halere, mahai gainean jartzeko parada eskaintzen du, berriro ere, ezohiko egoera honek. Noiz arte mantenduko dute USE proba? Zergatik jarraitu ebaluazio kalifikatzailearekin? Noizko ebaluazio hezigarria? Osasun krisiak agerikoago bilakatu dezake eztabaida. Zentzu horretan, apurka-apurka, gu irakasle bezala ikaslearen bidelagun izatearen ideia errotzen ari gara, beheko etapetan garatzen hasi eta gorantz datorrena pixkanaka.

Datorren ikasturteari nola egingo zaio aurre?

Ziurrenik ezjakintasunarekin. Argi dago oraingo egoeran airean geratuko direla helburu didaktiko eta konpetentzien lorpenak. Hauek irailean ohiko egoeran hasten garenean, printzipioz horrela izatea espero baitugu, berrikusi eta indartu beharko da. Dagoeneko horretan ari gara lanean. Hau da, kurtso amaiera "berezi" hau antolatzen eta, era berean, datorren ikasturtearen hasiera adosten.

Konfinamenduan iritsi zaizue matrikulazio kanpaina. Nola egingo diozue aurre?

Honetan ere egokitu behar izan dugu. Ikasle zein familiekin gertuago egoteko eta ahalik eta informazio osatuena eskaintzeko, online bilerak egiten ari gara, banakako bilerak zein taldekakoak eskainiz.

Bertan, ahalik eta informazio gehien ematen diegu ikasleei zein familiei, ikasleen ordenagailuak erabiltzen ari baikara harrementarako. Egoera berri honek, matrikulazio garaian ere, gauza berriak egitera eta asmatzera eraman gaitu.

Laudio Ikastola



Zaraobe

Zaraobe, unibertsitatera saltoa egiteko erreferentziazko zentroa




Zaraobeko ikasleak, euskal jai batean. **Zaraobe Institutua**

Hezkuntza eskaintza oparoa dauka Zaraobe Institutuak. Aitzindaria eta erreferentziazko zentroa da langile heziketari zein. Batxilergo zientifiko-teknologiko ikasi daiteke bertan, hainbat motatako zikloekin batera: mekanizazioa, mantenu elektro-mekanikoa, menpekotasun egoera dauden pertsonei arreta eta mekatronika goi-mailako zikloa.

%99k gainditua

Urte askotako esperientzia du Zaraobek, eta eskarmentu hori emaitzetan nabaritzen da. Ikasleek urteak daramatzate nota paregabeak lortzen Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioan. Azken urteetan ikasleen %99ak baino gehiagok gainditu du proba hori. Gauzak hala, unibertsitatera salto egiteko plataforma hobezina da Zarobe.

Matrikulazio irekia bian dago dagoeneko. Zaraobe.hezkuntza.net atarian topatu daiteke informazio gehiago.





Hainbat ziklo ikasi daitezke Zaraoben. **Zaraobe Institutua**

"Bideokonferentzia bidez ematen ditugu klaseak konfinamendu egoera hasi zenetik"



JON MIKEL NABERAN ZARAOBE INSTITUTUKO FISIKA ETA KIMIKA IRAKASLEA. KONFINAMENDUAN KLASEAK NOLA EMAN DITUEN AZALDU DU.

Bi hilabete igaro dira hezkuntza zentroak itxita daudela koronabirusa dela eta. Nolakoa izan zen itxiera?

Uste dut, jende guztiari bezala, egoera honek jokoz kanpo harrapatu gintuela. Telebistan ikusten genuen Txinan osasun arazoren bat zegoela, baina telebistan ikusten dugunez beti uste dugu oso urrun gaudela. Gurera ez zela helduko pentsatzen genuen. Baina heldu zen.

Jendea ahal den moduan moldatu da, bai irakasleen aldetik eta bai ikasleen aldetik ere. Gure ikasleen artean behar bereziak dituzten ikasleak ere dauzkagu. Ikasle guztiek ez dauzkate telelana egiteko tramankulurik; irakasleok hala nola eduki badaukagu. Baina kontuan hartu behar da etxean ez zaudela bakarrik eta aparatua partekatu behar duzula. Denetarik gertatu da. Ikastetxean utzi ditugu Eskola 2.0ko portatil batzuk mailegu moduan familia batzuei, aparaturik ez zeukatelako. Familia gutxi batzuek ere ez zuten konexiorik etxean. Orduan, Eusko Jaurlaritza akordio batera heldu zen enpresa batekin internet txartelak prezio onean eskuratzeko.

Nola moldatu zara klaseak emateko?

Guk, zientzietako irakasleok, arazo larria daukagu, idazkera zientifikoa idatzi behar dugulako: formulak, zenbakiak eta abar. Ordenagailuetan ekuazioak idazteko editoreak oso txarrak dira eta ez dira bat ere erosoak. Institutuaren azken egunean arbela zuri bat hartu nuen, errotulatzaileak erabiltzeko arbela bat, eta nire etxera ekarri nuen.

Ikasleekin bideokonferentziak egiten nituen eta eskolak ematen nituen gelan egongo banintz bezala, arbelean idazten. Arazo bat egon zen, ikasle batzuk kexatzen baitziren batzuetan konexioaren kalitatea jaisten zelako, baita erresoluzioaren kalitatea ere. Irudia pixelaturik ikusten zutela zioten, eta orduan ez zuten arbelean idatzita zegoena ulertzen. Orduan erosi nituen zentimetro bateko puntako errotuladoreak. Egoera hobetu zen, baina batzuetan kexatzen ziren oraindik.

Azkenean, Aste Santuan aprobetxatu eta tableta digitalizatzaile bat erosi dut, "pen" batekin idazteko. Partekatzen dut nire pantaila ikasleekin eta arazorik gabe ikusten dute bertan idzten dudana. Uste dut matematika, fisika eta horrelako irakasgaietan, behar denean horrelako idazkera zientifikoa eta eskuz idaztea, ezinbestekoa dela horrelako tresnak edukitzea.

Nik batez ere bideokonferentziak egiten ditut. Fisika eta kimika ematen ditut batxilergo lehenengo mailan eta fisika batxilergo bigarren mailan. Gaitegia nahiko berria da bigarren mailan eta azalpen teorikoak behar dituzte arbelean ariketak egiteko. Selektibitatean horrelakoak topatuko dituzte eta behar dituzte. Nik horrela egiten dut.

Zer aholku emango zenieke konfinamendu egoera honetan ikasi behar duten ikasleei?

Batez ere uste dut barneratu behar dutela hau ez dela oporraldi bat eta lan egin behar dutela. Beste modu batean, guztiok egokitu behar garelako, baina lan egin behar dute. Eta batxilergo bigarren mailakoak ere, selektibitate froga daukatelako. Egia esan, aurten egitura bigundu dute; azterketaren maila aldatu dute daukagun egoera berezia dela eta. Hala ere, azterketa egin eta gainditu beharko dute. Eta ez batxilergo bigarren mailakoek bakarrik, ikasle guztiek ikasturtea amaitu behar dute. Eusko Jaurlaritzak nahi du DBH 4. mailakoek eta batxilergokoek amaitzea. Besteek ahal duten moduan amaituko dute, baina batez ere maila horietakoekin ea ekainerako fisikoki bueltatu ahal garen institutura, segurtasun neurriak mantenduta.

Ikusi beharko da nola egin ahalko dugun. Aholkua da eustea eta dena amaierarako ez uztea.

Zaraobe



zaraobe
institutua

LANBIDE HEZIKETA

- Eredu eleanitza goi mailako zikloan
- Metodologia aktiboak, erronketan oinarrituta
- Prestakuntza DUALA ziklo industrialetan
- Erasmus programa

OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA



ZURGINTZA

ERDI MAILAKO ZIKLOAK



MANTENTZE - LAN ELEKTROMEKANIKOA



MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEI ARRETA



MEKANIZAZIOA

GOI MAILAKO ZIKLOAK



MEKATRONIKA INDUSTRIALA

MATRIKULAZIOA

Online matrikula 4tik 21era
Ikastetxeko **idazkaritzan** 11tik 22ra

BATXILERGOA

- D eredua
- Banakako orientazio akademiko profesionala
- Informazio eta komunikazio teknologiak eskura
- Nazioarteko trukaketa
- Goimailako emaitzak



GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK



ZIENTZIAK



BIZITZARAKO KONPENTENTZIAK LANTZEN PEDAGOGIA BERRITZAILEEN BIDEZ IKASI:

- Ikasiz
- Elkarbiziz
- Pertsona izanez
- Komunikatuz
- Emozioak kudeatuz

IDENTITATEA · TALDEA · KOMUNIKAZIOA · EMOZIOAK · IDENTITATEA ADIMENA

Etxebarriaur kalea, 6 01470 Amurrio, Araba
945 39 30 00 // zaraobe@zaraobe.net
www.zaraobe.net **@zaraobeinsti**

Kokoriko Hezkuntza Faktoria

GURASO, TUTORE ETA HAIEN SEME-ALABEN ARTEKO ERLAZIOAK HOBETO KUDEATZEKO GOMENDIOAK DOSSIER BIHURTU DITU KOKORIKO HEZKUNTZA FAKTORIAK, ALARMA EGOERAREN FASE BERRI HONI AHALIK ETA HOBEREN AURRE EGIN AHAL IZATEKO.

Haurrak eta nerabeak kalera ateratzeko gida atera du Kokoriko Hezkuntza Faktoriak

Testua
Julen Solaun Martinez

Kokoriko Hezkuntza Faktoriak umeak eta nerabeak kalera ateratzeko gida atera du. Testuan azaldu moduan, "Alarma Egoerarekin ez dira kontuan hartu haurren eta nerabeen oinarrizko eskubideak eta beharrak, ezta beraien osasun integralerako beharrezkoak diren neurriak ere". Kokorikoko kideen iritziz, 14 urtetik beherakoak kalera irteteko baimena "modu traketsean eta zehaztasun gutxirekin" eman du Espainiako Gobernuak. Gauzak hala, aholkuz beteriko gida zabaldu dute.

Lehenik eta behin, haurrei kalera atera nahi duten ala ez galdetzea gomendatu dute, helduak erantzunaren arabera moldatzeko ekintza erantzunaren arabera moldatzeko. Era berean, Kokorikoko kideek seme-alaba bakoitzaren "beharrezko denbora errespetatzea" eskatu dute,

Lehenik eta behin, haurrei kalera atera nahi duten ala ez galdetzea gomendatu dute, helduak erantzunaren arabera moldatzeko ekintza

etxean geratzeak ez duela sozializazio prozesua etengo gehituta: "Kalera irteteak gonbidapena izan behar du, ez inposaketa bat".

Horren harira, behar sanitarioa dela eta jarritako mugak errespetatuta, kalera ateratzekotan "kanpoko espazioarekin kontaktua izatea" garrantzitsua dela adierazi dute. Ildo beretik, haur eta nerabe bakoitzari modu askean mugitzen uztea ere eskatu diete gurasoei, nahiz eta aldez aurretik finkatutako ibilbidea izatea aholkatu.

Arrazoi horrengatik, etxetik irten aurretik ibilbidea denboraz eta denen artean prestatzea hobetsi dute Hezkuntza Faktoriatik, baita gutxieneko arau batzuen finkapena ere.

Horrez gain, kalera ateratzeko denbora hori haurrarena dela gogorarazi nahi izan dute, "ez helduarena".

Hala ere, etxera bueltatzean

Aiaraldea.eus atarian irakurri eta jaitsi daiteke gida osorik

haur eta nerabeen partetik haserrealdiak egotea posiblea dela adierazi dute gidan, eta "deskarga emozionalak" direla azaldu dute. Zentzu horretan, egoera ahalik eta hoberen kudeatzeko aholkuak ematen dituzte txostenean, hala nola: Aurpegiratzeak ekiditea, bere frustrazioa ulertzen dela adieraztea edota uneoro gertu geratzea. Garrantzitsuena, beraz, haurrarekiko harremana eta konfiantza zaintzea da, Kokorikoko kideen aburuz.

14 eta 18 urte tarteko nerabeen inguruan ere mintzatu dira gidan, eta "harreman eta kudeaketa sozial desberdina" behar dutela zehaztu dute, haurtzaroaren eta helduaroaren tartean baitaude. Haien hiru behar nagusietara egokitzea eskatu diote jendarteari: Lagunekin egotea, guraso eta familiarekin ez egotea eta ardura dutela sentitzea. Horretarako gakoetako bat haien intimitaterako tarteak uztea da.





KOKORIKO HEZKUNTZA FAKTORIA

KALEAK BERRESKURATZERA

Haur eta nerabeak etxeetan izan ditugu hilabete luzez, etxean lau pareten artean, zortekoak behintzat balkoi txikia izan dutenak, haizea hartu eta kalean egotearen sentsazioa izan dutelako. Garai luze honetan haurren beharrak eta eskubideak aztertu al dira? Haurrak erdigunean kokatu al dira erabakiak hartzeko?

Haurrak eta nerabeak etxeetan egon dira bai! Baina beraien buruak eta gorputzak, jolasten, sortzen eta esperimentatzen egon dira. Etxetik ateratzean bestelako herri bat topatuko zutela amesten eta sortzen.

Denborak agintzen ez duen herri bat, presarik gabea, tximeleta baten hegaldia ordu betez ikusteko aukera izango duten herri bat.

Kaleak haurren eta nerabeen beharretatik eta beraien ikuspegitik eraikiak izango diren herri bat, kotxeak hainbeste espazio okupatuko ez duten herri bat.

Familiarekin lasaitasunez jolastu eta hitz egin ahal izango duten herri bat, familian maitatzeko tartea hartuko den herri bat.

Jolaserako herri bat, beraien haziera mugatuko duen limiterik gabea, putzuetan salto egiteko aukera, zuhaitzetara igotzeko aukera, oihukatzeko aukera, ... dagoen herri bat.

Benetako parte-hartze eskubidea izango duten herri bat, beraien beharrak, emozioak, iritziak, ekarpenak eta proposamenak entzun eta aintzat hartuko dituen herri bat.

Haurtzaroaren kultura errespetatuko duen herri bat! Haurrek bere modu estetiko, etiko eta poetiko propioa dutelako mundua ikusteko eta interpretatzeko.

Haurrak eta nerabeak, amesten egon dira, baina ez dira geldirik egon. Ametsak egi bihurtzen saiatuko dira eta gu helduak ondoan izango gaituzte bidelagun.

Haurrak eta nerabeak eroso bizi diren herria, pertsona ororentzako erosoa den herria izango delako!

Haurrak eta nerabeak, kalea bizi, kalea jolastu, kalea berreskuratu!

Urduñako Antzinako Andra Maria ikastetxea, ikasketa prozesu osoan bidelagun

50 urteko ibilbidea du Urduñako Antzinako Andra Maria ikastetxeak. Azken hamarkadetan jazotako aldaketetara egokitu da, eta erreferentziazko zentroa bilakatu da familia askorentzat, ikastetxean oso ugariak baitira ikasle ohien semealabak.

Ikastetxeko aniztasuna ere nabarmentzeko modukoa da. Hezkuntza etapa guztiak barnebiltzen ditu zentroak, haurtzaindegitik Batxilergora, eta gehiago zabaltzeko asmoa dute, Plataforma Anitzeko Garapenerako Goi-mailako Zikloa eskaintzeko asmoa baitute laster. "Etorkizunerako aukera paregabea" izango da hori, Antzinako Andra Mariako arduradunen arabera.

Batxilergoko eskaintzan, aldiz, unibertsitatera zein goimailako ziklo batera salto egiteko prestatzen dituzte ikasleak. Euskarazko B2 titulua eta First edota Advanced azterketak egiteko aukera ere eskaintzen dute, Cambrigte eskolarekin elkarlanean. Kudeaketa Aurreratuko prozesuetan ere murgilduta daude, eta materialen digitalizazioaren aldeko apustua egiten dute, besteak beste.

Eskolatik harago

Hala ere, Antzinako Andra Mariako irakasleek nabarmendu dute euren eragin eremua ez dela eskolara mugatzen. "Pertsonak formatzea dugu helburu, espediente akademikoetatik harago". Elkarbizitza plan sendoa dute gainera, hezkuntza komunitate osoaren parte hartzearekin osatutakoa. Behatoki bat dute, edozein arazo detektatu eta modu egokian bideratzeko lan egiten duena.



Laudioalde

laudioalde
150 LANBIDE ESKOLA
urte · años

ikasLAN



Oinarrizko lanbide heziketa

Soldadura

Erdi mailako heziketa zikloak

Administrazio-kudeaketa

Instalazio Elektriko eta Automatikoak

Mantentze-lan Elektromekanikoa

Mekanizazioa

Soldadura eta Galdaragintza

Batxilergoa (euskaraz eta gaztelaniaz)

Zientziak

Giza eta Gizarte Zientziak

Goi mailako heziketa zikloak

Zuzendaritzari laguntza ematea


Administrazioa eta Finantzak

Sistema Elektromekanikoak eta Automatizatuak

Automatizazio eta Robotika Industriala

Mekatronika Industriala

Fabrikazio mekanikoko Produkzioaren Programatzea



BATXILERGO AURREMATRIKULA EPEA:

Aurrematrikula presentziala: **maiatzaren 11tik 22ra** bitartekoa izango da.
Hala ere, eskabideak **on-line** aurkeztu ahal izango dira **maiatzaren 4tik aurrera.**

Formato digitalean bakarrik; *http://www.euskadi.eus/admision-y-matriculacion-bachillerato/web01- a2hikast/es/*

LANBIDE HEZIKETA AURREMATRIKULA EPEA:

Laster azalduko dira

Virgen del Carmen, 17 01400 **LAUDIO** (Araba)
Tel: 946 72 05 05 Fax: 946 72 10 57 **secretaria@laudioalde.eus** www.laudioalde.eus